

Baztango nekazaritza XVI. mendetik XVIII. mendera. Nekazaritzaren garapena eta artoaren sarreraren eraginak

Egilea: Fermin Larralde Cordoba

Tutorea: Alvaro Aragon Ruano

Historiako Gradua

2018/1019

Erdi-aroko, Aro Berriko eta Ameriketako Historia Saila

Laburpena

Baztango nekazaritzari buruzko lan honetan, XVI. mendetik XVIII. mendera garatutako nekazaritzaren azterketa egiten da. Horretarako hasiera batean, Hego Euskal Herriko zonalde hezeko nekazaritzaren testuinguruan kokatzen da lan hau. Ez zen nekazaritzarako zonalderik oparoena baina, hazkunde bat izan zuen Aro Modernoan zehar. Hego Euskal Herri hezean pisuaren gehiengoa industriak eta merkataritzak zuten, hala ere lehenengo sektorea garrantzitsua zen. Lehenengo sektoreko aktibitateko garrantzitsuena abeltzaintza zen, klima eta orografiarengatik ez baitzen tokirik aproposena nekazaritza garatzeko. Hala ere tendentzia hau artoaren etorrera eta labore honen hedakuntzarekin aldatu egingo da, izan ere, artoa hazteko baldintzak onuragarriak ziren lurralde hauetan. Labore honek sortutako inpaktuaren ondorioz, basoan zeuden lurren eta nekazaritza larreen luberritzeak gertatu ziren. Fenomeno honek, bigarren sektoreko basoaren aprobetxamenduari batera atzerakuntza ekarri zuen. XVII. mendean sartutako nekazaritza teknika berriek, sektorearen garapen ekarri zuten, batez ere XVIII. mendean, aurrerakuntza hauek zabaldu zirelarik.

Baztani buruzko atalean, bertako nekazaritzaren analisi bat egiten da, sektore honi eragiten dionarekin. Lehenik eta behin garai hartako berezitasun politiko-administratiboa hartzen da kontuan, bailararen eta batez ere lur komunei nola eragiten dien islatzeko. Ondotik, XVI. mendeko nekazaritzaren baitan barnebiltzen da edukia, bertan gertatu ziren fenomenoek bailarari egin zizkioten ekarpenak aztertzeko. Ondoren XVII. mendeko nekazaritzan zentratuko da lana, garai honetako aurrerapenek zein artoaren sarrerak izandako eraginak kontua hartuz. Honekin jarraituz, XVIII. mendeko nekazaritzaren inguruan barnebilduko da lana, garai honetako hazkundearen egonkortasunean hain zuzen. Hiru mende hauetan gizartean nekazaritzak izandako pisua azpimarragarria da, izan ere familien auto-hornikuntzarako ezinbestekoa baitzen. Nekazaritza lurren hedakuntzak, lurralde komunalaren atzerapena ekarri zuen, ekoizleen jarrera pribatua areagotuz. Hala ere Baztango garai horretako gizarte konplexuan, hazkundeak eta beherakadak ez ziren uniformeak izan, hots, mailakatutako gizarte batean, herritar xumeek krisi garaiak errazago pairatu zituzten, Jauregietako partaideek baino. Hala ere bertan bizi ziren *barrideek* beraien interesen alde jokatu zuten, Batzar Orokorrek egiten zituzten Ordenantzekin haien interesak defendatuz. Hauek baitziren bailara honetan agintzen zuten legeak. Laburbilduz, lan honetan, Hego Euskal Herriko

zonalde hezearen eta Baztango nekazaritzaren garapena aztertzen saiatuko gara, ulergarriagoa izateko asmoz.

Aurkibidea

1. Sarrera.....	5
2. Hego Euskal Herriko ekonomiaren zenbait argibide.....	5
3. Hego Euskal Herriko zonalde hezeko nekazaritza eta haren ezaugarriak XVI -XVIII. mendeen artean.....	8
4. Baztango nekazaritzaren Aro Berriko garapena: Artoaren sarreraren inpaktua.....	15
5. Ondorioak.....	24
6. Bibliografia.....	27

1. Sarrera

Baztango nekazaritza lantzen den lan honetan, iturri gehienak bibliografikoak izan dira, hots, bigarren mailako iturriak, hala ere, Artxibategi ezberdinetan (Baztango parrokiak, Udal-artxibategiak, Iruñeko zein Nafarroako artxibategiak ...) jasotako lehen mailako iturriak badaude, Hala nola, Garaiko auziak, Ordenantzak, hamarrenen testigantzak etab. Honek ikuspegi partziala izatea ahalbidetzen du, horregatik, iturri ezberdinen arteko aniztasuna bilatu dut, gaiaren kokapen zehatzago bat edukitzeko. Hego Euskal Herriko zonalde hezeko laboreen zein nekazaritzari buruzko garai honetako xehetasunak aztertzerakoan, hots, Aro Modernoan, ikusi dezakegu probintzia ezberdinen artean azterketarako egoera desberdinak daudela, hau da, informazio iturriak ugariagoak dira probintzia batzuetan besteetan baino, azterketa hauek egiterako orduan, informazio iturriak eskasak badira, zailagoa da garai horretako egoerari buruzko hurbilketa zehatza egitea. Hau esanda, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoan informazio iturriak ugariagoak dira, izan ere, 1588-1589 eta 1771-1775 urteen bitartean, dokumentazio iturri fidagarriak eta garai honetako primizia zein hamarrenen azterketa elaboratuak aurki ditzakegu (Fernandez de Pinedo & Bilbao Bilbao, 1984). Baztango kasuan, Floristan Imizcozek (Floristán, 1970) eta Jose Maria Imizcozek (Floristan & Imízcoz, 1993), Baztandarren arteko erlazioan kokatu dute haien ikerketa, bailararen barrenean zeuden erlazioak aztertuz. Pedro Esartek, Baztango Batzar Orokorren eta Nafarroako konkistaren kokapenak ditu hizpide bere obretan (Esarte Muniain, 2006). Baztango nekazaritzari buruz gehien idatzi duen autoreak Alfredo Arizcun (Arizcun Cela, 1988) izan da, honek azterketa zehatza egin baitzuen laboreen azterketan. Hala ere Baztango iturri hauek espainolez eta frantsesez idatziak izan dira, hau da, ez dago euskarazko iturririk garai honetan. Lan honen bitartez, Baztango nekazaritzaren bigarren mailako papera eta sektore honen gorakada atertu nahi da, Aro Modernoan zehar. Artoaren sarrerak eta nekazaritza-aurrerapenak izan zuten eragina dauka aztergai lan honek. Artikulu honen bitartez garai honetako Baztango nekazaritzaren irakurketa eguneratua egitea da.

2. Hego Euskal Herriko ekonomiaren zenbait argibide

Baztan eta bailara honi buruzko nekazaritzari egin beharreko analisi honetan, gomendagarria litzateke lehenik eta behin XVI. eta XVIII. mendeen bitarteko testuingurura murgiltzea, batez ere Nafarroa eta Hego Euskal Herria kontuan hartuko dituen testuinguru batera. Garai horretako egoera azaltzeko asmotan, Hego Euskal

Herriko klima atlantikoko zonaldeko nekazaritza aztertuko dut hasiera batean, toki desberdinetako kasuak zein ezaugarriak aipatuz.

Euskal Herriko zonalde hezea anitza zen nekazaritza arloan, bere baitan, lurralde txikiz osaturiko eskualdeak zeuden, desberdinak hauen artean. Hala ere, eskualde bakoitzak zeukan ezberdintasunez gain, hainbat ezaugarri komun zituzten nekazaritzaren alorrean, hots, lurrak erabiltzeko modua, landatze eta nekazaritza teknika bertsuak eta produzitzeko azpiegiturak ere nahiko komunak ziren eskualdeak komunean ikusita. Zonalde honetan, Bizkaia, hau da, Nerbioi-Ibaizabal ardatza, Enkarterri, Aiara eta Urduñako lurraldeak, Ibaizabalen ekialdeko zonaldea, Busturia eta Uribe, eta barrualdeko bailarak, hau da, Arratia, Durangaldea, Orozkoko Bailara eta Aramaioko lurraldeek osatzen zuten besteak beste. Gipuzkoan berriz, *Kaialdeko* zonaldea, hots, Mutrikutik Hondarribira doan kostaldeko zonaldea, *Betherriko* zonaldea, Hondarribitik Tolosarako zonaldea eta *Goiherriko*(Tolosatik probintziaren hegoalderaino dagoen eremua) zonaldeak zeuden. Nafarroan aldiz, Mendialdeko zonaldea zen zonalde hezeko baldintza fisikoak zituen lurraldea, bere baitan zenbait bailara zeuden, adibidez, Burunda, Aezkoa, Malerreka, Bortziriak, Baztan, Leitza eta Goizuetako zonaldeak (Perurena Loiarte, 2018).

Zonalde hezean nekazaritza praktikatzeari gain, industria eta merkataritzaren sektoreek garrantzi handia izan zuten, batik bat urte hauetan garapen handia izan zutelako, Euskal Herriko zonalde zentralak ez bezala, nekazaritza sektorean soilik baitzegoen espezializatuta salbuespenak salbuespen. Bestetik, gero aipatuko dugun moduan, *artoaren* sarreraren poderioz nekazaritzak eraldaketa eta garapen handia lortu zuen zonalde hezean Aro Modernoan zehar. Zonalde hezeko garapen hau ezin zezakeen ulertu baldintza fisikoak kontuan hartu gabe, hots, klima lurralde malkartsuak eta uraren ibilbideak zonalde egokia zen abeltzaintza eta basogintzarekin erlazionatuta dauden jarduerak garatzeko, aldiz nekazaritzarako elementu fisiko berdinek oztopoak jartzen zituzten, hau modu errentagarri eta produktiboago batean praktikatzeko. Bertan aurkitzen ziren baso, meatze eta ur-korronteek, leku aproposa bilakatu zuten siderometalurgia industria sendo bat finkatzeko. Sektore honen garrantzia eta Gaztela eta Iparraldeko Atlantiar zonaldeekin okupatzen zuen zonaldea ikusita, merkataritzarako leku aproposa bihurtu zen. Horrez gain, Bizkaia eta Gipuzkoako portuak garrantzitsu bilakatu ziren, batik bat basogintzak itsasontziak egiteko ematen zuen erraztasunagatik

eta industria siderometalurgiko horrek sortutako soberakinekin komertziazteko ematen zituen baliabideengatik (Fernandez de Pinedo, 1999, 197-203).

Kokapenagatik (Frantziarekin muga, Atlantiar Itsasorako sarbidea) eta baldintza fisikoengatik bigarren eta hirugarren sektoreek beste lekuetan baino pisu gehiago zeukaten, kontuan hartuz garaiko gizartea industria-aurreko gizarte bat dela. Bestetik, lehen sektorean, abeltzaintza eta basogintzako jarduerak gailentzen ziren nekazaritzaren gainetik XVI. mendean, nahiz eta jarduera hau auto-hornikuntzarako anitz praktikatu. Hala ere nekazaritzarako zonalde egoki bat ez izateak, bigarren eta hirugarren sektoretik ateratako etekinekin nekazal produktuen inportazioak egitea ahalbidetzen zituen. Lurraldean banaketa abeltzaintza eta industriako jarduerak garatzeko erabiltzen zen, berebiziko garrantzia baitzuen siderometalurgia, ikatz-industria eta ontzigintzarentzat. Basoa ugaria zenez, abeltzaintza garatzeko erraztasun handiagoa zegoen nekazaritza praktikatzeko baino, batik bat luberrien faltagatik (Fernandez de Pinedo & Bilbao Bilbao, 1984, 102).

Nahiz eta Hego Euskal Herriko zonalde hezea nekazaritzarako aproposena ez izan, laborantzan jarduteko lurak areagotu eta lehendik zeuden laborantzak intentsifikatu egin zituzten. Hau da, nahiz eta etekin gehiago atera bigarren eta hirugarren sektoretik, ez zuten lehenengo sektorearen eta batez ere nekazaritzaren hazkundea bazterrean uzten, honenbestez, nekazal aktibitatea areagotzea bilatzen zuten. Fenomeno hau azaltzeko ezinbestekoa da jakitea, bigarren eta hirugarren sektoreko lanak, batez ere meatzaritza, ikazkintza eta garraioa nekazarietara eta abeltzainek praktikatzeko zutela lehenengo sektoreaz gain. Honekin batera, jendeak Hego Euskal Herriko zonalde hezera, batez ere kostaldera emigratu zuen, eta lan esku honek aurretik aipatutako fenomenoak areagotzea ekarri zuen (Egaña, 1788, 175). Lan hauek, nekazarietara eta abeltzainek burutzen zituzten, beraien lanen osagarri bezala, hau da, soberan zuten denboran.

Emigrazioa kostalderantz joan zen barnealdeko zonaldeetatik, izan ere, barnealdeko zonaldeak gehien bat nekazaritzari lotuak, kostaldeko eskariari zuzenki loturik zeuden, horrela eskaria urria zen momentuetan, barnealdeko populazioak kostaldera emigratzen zuten bertan behar zen lan eskua betetzeko. Hemen ere, nekazaritza jarduerak garraioarekin tartekatzen zituzten. Hala ere, Hego Euskal Herriko industria siderometalurgikoak nekez betetzen zuten herrialdeko eskaria, esportazioetara

bideraturik baitzegoen, batik bat Gaztela eta Atlantikora. Horregatik esan daiteke industria hau, kanpo eragileen mendekoa zela, hots, Gaztela eta Atlantikoko zonaldeena. Merkataritza ere ez zen Hego Euskal Herri barrenean geratzen baizik eta hortik kanpoko lekuetara egiten zen, hau da, herri barreneko merkataritzak ez zuen horrelako garrantzirik kanpo-merkataritzarekin alderatuta. Nekazaritza errentagarriagoa zen zonaldeetan, hau da, Hego Euskal Herriko zonalde zentrolean, produkzioa areagotzera ekartzen zuen sistema honek, kostaldean, industrian eta merkataritzan espezializatuagoak baitzeuden. Hala ere, esan daiteke, Hego Euskal Herriak “nekazaritza eredua” jarraitzen zuela, bigarren eta hirugarren sektoreak ez zirelako lehenengo sektoreari gailentzen.

3. Hego Euskal Herriko zonalde hezeko nekazaritza eta haren ezaugarriak XVI-XVIII. mendeen artean

Hau aipatu ondotik, nekazaritzako sektorea azpimarratu nahi nuke gai honetan, eta ondoko lerroetan Hego Euskal Herriko zonalde hezeko nekazaritzaren ikuspegi orokor bat egingo dut. Azpimarragarria da, Hego Euskal Herrian nekazaritzari dagokionez ezberdintasunak zeudela eta ez zela lurralde komun bat baizik eta nekazaritza paisai ezberdinez osaturiko leku bat zen.

Lehenik eta behin Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako mendialdean, klima hezea eta hotzaren eraginez, nekazaritzak ez zeukan horrelako pisu garrantzitsurik, izan ere, baldintza klimatiko zein fisikoen ondorioz abeltzaintza errentagarriagoa bihurtu zen bertako populazioarentzat (Gonzalez Portilla, 1987, 84-85). Hala ere, abeltzaintza garrantzitsuagoa zen zonaldeetan abereek, nekazaritzarako onuragarriak ziren baliabideak produzitzen zituzten, hala nola, lurraren ustiapena hobetzeko erabiltzen ziren ongarriak eta fertilizanteak, lan egiten zuten nekazarien elikagai sostengua, hots, animalietatik ateratzen zuten haragia edota animaliek ematen zituzten baliabideen bitartez eraldatutako produktuak, hau da, bigarren mailako produktuak: esnea, gurina, gaztanbera ... Bestetik, animalien larruaren aprobetxamenduaren bitartez, lortutako produktu ezberdinak zeuden, hala nola, arropa egiteko larruak, edariak kontserbatzeko zagigintzaren bidez lortutako zatoak, oinetakoak, animalien urdailekin egindako kandelak etab. Guzti honek, nekazari eta abeltzain hauen lan-indarra hobetzea suposatzen zuen, gainera, beraien ustiategietatik lortutako soberakinak, merkatuan saltzeko aukera ematen zien, falta zituzten baliabideak lortzeko aukerak handituz.

Horregatik, eta batez ere klima hezea zeukaten lurraldeetan nekazaritza eta abeltzaintza osagarriak ziren.

Abeltzaintzarekin luzatu gabe, garrantzitsua da kontuan hartzea zein labore landatzen ziren lurralde ezberdinetan, batez ere, tokian tokiko berezitasunak islatzeko. Arabako gehiengoan, garia zen gehien landatzen zen zereala, nahiz eta probintzia honetako zonalde hezeetan zein Arabar Errioxan lehenengoa ez izan. Nafarroan erdialdeko zonaldean ere landatzen zen, baita iparraldean ere, nahiz eta baldintza fisiko eta klimatikoak hoberenak ez izan labore honetarako, izan ere, elikagai sostengu nagusienetako bat garitik ateratzen zuten, gerora nagusitasun hau aldatu egingo zen. Garagarra eta oloa bigarren postu batean zeuden, baita zekalea ere, hau da, hauek ere landatzen ziren baina garia zen gehien landatzen zen labore gehienetan. XVII. mendetik aurrera eta XVIII. mendean zehar, iparraldeko zonaldeetan Ameriketatik ekarritako labore bat nagusitzen hasi zen, artoa. Labore hau, askoz hobeto moldatzen baitzen zonalde hezeko baldintza klimatikotara eta laborerik garrantzitsuena bihurtu zen, besteen beherakada suposatuz, nahiz eta artatxikia ongi moldatu bertako baldintza fisikoetara, urteen poderioz artoa izan zen efizienteena bertako nekazariarentzat. Hala ere, prozesu hau ez zen bat-batekoa izan eta ondotik argiago azalduko dut fenomeno honen zergatia.

Nafarroan aldiz, zailagoa da Aro Modernoko nekazaritzari buruzko egoera aztertzea, batik bat dokumentazio eskasia handiagoa delako eta bestetik hauen ikerketa egin ez delako kasu anitzetan. Nahiz eta salbuespen batzuk aurkitzen ditugun, Iratxeko Monasterioko hamarrenen datuak hartuta Lizarrako eta inguruko herrietako nekazaritzari buruzko lanak idatzi dira (Floristan Imizcoz, 1982). Iparraldeko zonaldeari dagokionez, hainbat lan egin dira, Baztango bailarari buruz eta hamarrenen datuak hartuta beste lan garrantzitsu bat egin zen (Arizcun Cela, 1988). Bestalde Bortziriei buruzko garai honetako ikerketak aurki daitezke, hamarrenen datuekin eginak, batez ere XVII. mendea aztergai dutenak (Mikelarena Peña, 1988).

Gipuzkoako lurraldeari dagokionez, Euskal Herriko zonalde hezean kokatuta, nekazaritzan, ikusteko gutxi zeukan mediterranean klima zeukaten lurraldeetan erabiltzen ziren teknika eta laboreekin, hots, garia, mahastiak eta olibondoak ia ez zeukaten garrantzirik, batik bat, klima eta orografia ez zirelako labore eta fruitu horientzat egokienak. XVI. mendearen hasieran nekazarien gehiengo lurjabea zen, hala

ere mendea pasatu ahala nekazariak maizterrak edo enfiteutak bihurtu ziren (Diaz de Durana, 1998, 69-70). Bertako nekazaritza ustiapenak produkzio urrikoak ziren, gehien bat familien auto-hornikuntzarako bideratuak zeudenak. Hau esanda, inbertsio handirik ez zen egiten lurralde horietan eta lana normalean familiako partaideek egiten zuten nekazaritza esplotazio hauetan. Lehen aipatzen den moduan, nekazarien gehiengoa lurjabea zen, hau ezin daiteke ulertu XV. mendeko hazkunde ekonomikoa aztertu gabe, izan ere, mende honetako bigarren erdialdean demografia hazkundera eman zen, batez ere landa-eremuan, hazkunde honekin batera nekazaritza produktuen prezioa jaitsi egin zen, nekazarien soldata erreala igoaraziz, industrian eta merkataritzan aritzen zirenekin batera. Nekazaritza produktuen produkzioa areagotu zen, honen ondorioz eta aurretik aipatu bezala, hauen prezioen jaitsiera ekarri zuen (Fernandez de Pinedo & Bilbao Bilbao, 1984, 83-88).

XVI. mendearen lehenengo mende erdian zerealak ziren gehien landatzen ziren laboreak, garrantzitsuena garia zelarrik, nahiz eta artatxikia, oloa, garagarra eta zekalea ere landatu. Lekaleei dagokienez babak ziren nagusi, honekin batera mota ezberdinetako barazkiak landatzen zituzten. Fruta-arbolei dagokienez, gehien bat gaztainondoak eta sagarrondoak gailentzen ziren, nahiz eta kostaldean txakolina ere agertu, bestetik lihoa ere ohikoa zen, batik bat jantziak egiteko lehengai bezala erabiltzen zelako. Laborantza hauek ugartuz joan ziren XV. eta XVI. mendean zehar, udal eremu batzuk lehen erabiltzen ez zirenak laborantza hauetara bideratu ziren, zenbaitetan usurpazioen bidez, honen testigantza udaletzeko zenbait ordenantzetan aipatzen da. Bestetik, abeltzaintzarako erabiltzen ziren zenbait eremu, nekazaritzarako erabiltzen hasi ziren, hau da, lehen saroi bezala kalifikatuak zeuden lurralde batzuk abeltzaintzarako erabiltzeari utzi zioten (Diaz de Durana, 2001, 54-60). Oñatiko saroi kasua adibide garbi bat da, abeltzaintzarako erabili beharrean garia landatzeko erabiltzen hasi baitziren, “*ogi lurrak*” bezala ezagutuak ziren garai hartan (Ugarte Elorza, 1976).

Nekazaritza teknikak aldaketa bat jasan zuten, batez ere, produkzioa intentsiboagoa bihurtu zelako. Gipuzkoako zonalde batzuetan, idiz tiratutako goldeak eta laiak ezagunak ziren ordurako, batez ere siderurgia erroturik zegoen zonaldeetan, leku horietan tresna hauek lortzeko erraztasun handiagoa baitzegoen (Aragon Ruano, 1999, 11 eta 32). Horrez gain, segak erabiltzen ziren, iratzeak eta otarreak mozteko, iratzeak, ongarrri gisa edo animalientzako kamantzak egiteko erabiltzen ziren besteak beste. Babak eta arbiak ziren produkzio intentsiboena jasaten zuten produktuak, fruta-

arboletan berriz, sagarrondoak, hauek ere abereak elikatzeko erabiltzen baitziren. Nahiz eta nekazaritza teknika hauek XVII. mendekoak bezala agertu askotan, agerikoa da XVI. mendean ere erabiliak zirela (Garcia de Cortazar, 1966, 345-362). Hobekuntza hauek Nafarroako zein Bizkaiko nekazariak ezagutzen zituzten baita ere (Bilbao Bilbao, 1994, 102-103).

Hala ere XVII. mendeko aldaketarik garrantzitsuena artoarena izan zen. Labore hau Ameriketatik ekarri zuten, Euskal Herriko zonalde hezean azkar errotuz. Horrela Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako zonalde hezeetan (Baztan eta Burunda), nekazaritza produkzioa XVII. mendeko bigarren erdialdetik aurrera haziz joan zen, gehien bat artoaren produkzioaren ondorioz. XVIII. menderako, artoaren produkzioa gariarena baino handiagoa zen, momentu batzuetan hirukoiztera iritsiz (sagarrondoak ipar-ekialdean produkzio garrantzitsua izanik), nahiz eta hau Gipuzkoako ipar-ekialdean nabariagoa izan zen, ipar-mendebaldean garia nagusitzen zen oraindik (Arizcun Cela, 1988, 17).

Lehen basoak zeuden eremuetan luberriak egin ziren, hauek orokorrean, artoaren produkzioa zuten helburu. Hala ere labore honen hedakuntza ezin daiteke ulertu siderurgiaren eta merkataritzaren XVII. mendeko errekonbertsioaren eraginik gabe, artoaren hedakuntza honen ondorioetako bat izan zen (Arizcun Cela, 1988, 17-18). Hala ere, nahiz eta bigarren eta hirugarren sektoreko aldaketek eragina izan, XVI. mendeko nekazaritza krisiari eta XVII. mendeko hasierako uda txarrek (batez ere 1590-1595, 1599-1600, 1611, 1619-1621, 1627-1631, 1635-1636 eta 1643-1644 artekoak), kalte handiak egin zituzten uztetan. Kalte hauek populazioa elikatzeko problematika areagotu zuten, horregatik arazo honi irtenbidea ematea izango zen arrazoi garrantzitsuetako bat (Fernandez de Pinedo & Bilbao Bilbao, 1984, 118).

Hau aipatuta esan daiteke, XVII. mendean teknologikoki teknika berdintsuak erabiltzen zirela XVI. mendearekin alderatuz, hala ere, aldaketa garrantzitsuak izan ziren, batik batik nekazaritza lurren zabalkundeari erreparatuta. Luberri berriek, zein nekazaritzaren intentsifikazioak (lugorrien desagerpenarekin harreman zuzena dutenak), nekazaritza paisai zabalago bat eratu zuten (artoaz gain, garia, arbia, leguminosoak, sagardiak, tomateak, piperrak, indiabak, patata eta zenbait mahasti kostaldean produzitzen zirenak besteak beste). Ligorrien desagerpenaz solastatzeko orduan, esan beharra dago XVII. mende bukaeran eta XVIII. mende hasieran, ongarriak abereenak edo landareenak izan

(erabiltzen jarraituko zituztenak) beharrean karea erabiltzen hasi zirela (Iriarte, Narbarte, Peña-Chocarro, & Quiros, 2019, 71-79). Karearekin, lur buztintsuaren errendimendua hobetzen zen eta laboreak produzitzerako orduan gehiago ekoizteko aukera zuten nekazariak (Bilbao Bilbao, 1981, 48). Lurrari aprobetxamendu handiagoa ateratzen zioten horrela eta lurren errendimendu falta konpentsatzen zen, ongarri eta fertilizante berrien sarrerarekin. Bestetik, artoaren ekoizte handiagoak behi-haziendaren produkzio intentsiboagoa suposatu zuen, hauek elikatzeke erraztasuna areagotu zelako, ondorioz behi-haziendak ongarri gehiago produzitzen zuen nekazaritza lurrentzat (Aragon Ruano, 2009, 29-90). Fenomeno honek abereetan eragina izan zuen, izan ere, artoa gehien landatzen zen lurraldeetan behi-hazienda gutxituz joan zen, batik bat, deforestazio prozesuarengatik, hau da, basoa soiltzen zuten lurra nekazaritzarako luberri bihurtzen zen. Ereku hauetan, ardi-haziendak garrantzi handiagoa hartu zuen, nahiz eta mendebaldean gariaren produkzioagatik eta artoaren produkzio berantiarrengatik behi-hazienda nagusitu. Tendentzia honek XVIII. eta XIX. mendeetan zehar jarraitu zuen (Aragon Ruano, 2015, 111).

Erabiltzen ziren lurraldeei erreparatuta, ikusi dezakegu hasiera batean nekazaritza lurren kopurua ez zela ondoko mendeetan bezalako adina, garai horretan abeltzaintzarako lurrak edota basoa baitziren. Hala ere, hauen nekazaritzarako balioa estimatzen hasi ziren ondoko hamarkadetan argiki ikusten den bezala, nahiz eta prozesu ezberdinak izan, hots gorakadak ez ziren bat-batean gertatu, baizik eta testuinguruaren arabera. Hazkunde hau hobe ulertzeko lur eremuen prezioa izan zen hauen balioaren adierazgarri bat. XVI. mendetik aurrera nekazaritza lurren prezioak igo egin ziren Gipuzkoan, hasierako hamarkadetan hiru erreal zen landaketa bakoitzeko, 1571-1580 urteetan aldiz, hamaika erreal ordaintzen zen landaketa bakoitza. Lurren garestitze honen ondorioz, nekazaritzarako lurren hazkundera geldotu zen. Hala ere XVI. mendeko azken bi hamarkadetan, landaketa bakoitzaren prezioa zortzi errealetara jaitsi zen, momentu horretan nekazaritzako lur erosleek aprobetxatuz. Hasierako hamarkadak eta bukaerako azken bi hamarkadetan nekazaritzarako lurrak hazi egin ziren, batik bat hauek erostea merkeagoa zelako. Hala ere, hasiera batean nekazaritzarako tradizionalki erabiltzen ziren lurrak saldu ziren, hots, luberri berririk ez zen saldu, aldiz azken hamarkadetan, udal ezberdinetako lurrak saldu ziren aprobetxamendu pribaturako. Erosleen gehienak merkatal oligarkiaren partaideak ziren. Honetaz gain, gariaren prezioaren igoerak

zerikusia du prozesu honekin, izan ere, gariaren mende hasierako prezioa laukoiztu baitzen (Mugartegui Eguía, 2012, 45-46).

XVII. mendean nekazaritza lurren hazkundeak jarraitu zuen, batik bat luberritze prozesu garrantzitsua gertatu zelako. Bigarren eta hirugarren sektoreko errekonbertsioaren ondorioz, nekazaritzak ere beherakada bat izan zuen hasiera batean, hau da, nekazarien produkzioa ez zen populazioaren beharrak asetzeko gai, produkzioaren jaitsiera honek produktuen prezioen igoera ekarri zuen eta ez zen aurreko urteetan bezalako etekinik ateratzen sektore honetatik. Horren ondorioz, nekazaritza efizientea izateko nahitaezko aldaketak egin behar ziren, horregatik basoa eta abeltzaintzarako lurak zirenak, nekazaritza ustiakuntzarako lurak izatera igaro ziren. Luberritze prozesu honek aurreko mendeko dinamika jarraitu zuen, pixkanaka nekazaritzarako tradizionalki erabiltzen ziren lurak ustiatzen jarraitu zituzten baina, luberri berriak erabiltzen hasi ziren lehenago aipatu bezala. Prozesu honek ondorengo mendean, hots, XVIII. mendean segida izan zuen ere, batik bat lehenengo hamarkadetan, beste luberri berri batzuk erabiltzen hasi baitziren. Prozesu hau artoaren etorrera baino lehen hasi zen, nahiz eta areagotu labore hau landatzen hasi zenean (Bilbao Bilbao, 1977, 157-180).

XVIII. mendeko nekazaritzan ez zen aldaketa handirik eman, nahiz eta produkzioa nabarmen igo zen aurreko mendearekin alderatuz. Orokorrean nekazaritzarentzat hazkunde mendea izan zen hau, hala ere beherakada momentuak izan zituen tarteka. 1690-1730 urte bitartean, nekazaritzak beherakada jasan zuen batik bat urte hauetan hotz handia egin zuelako eta ondorioz uzta txarrak izan ziren nagusitu zirenak. Hala ere, bigarren erdialdetik aurrera hazkundea izan zen nekazaritzan, batik bat 1770eko hamarkadatik aurrera, non produkzioa nabarmen igo zen (Fernandez de Pinedo & Bilbao Bilbao, 1984, 132). Hasierako hamarkaden beherakada hori ezin daiteke ulertu, aurreko mendearekin konparatuta, hau da, lehenengo hiru hamarkada hauetan nekazaritza produktuen ekoizpena areagotu egin zen aurreko mendearen bukaerarekiko, baina ez zen XVIII. mendeko bigarren erdialdea bezain azpimarragarria izan. XVII. mendeko artoaren zabalkundeak, nekazaritzan bulkada berri bat suposatu zuen zonalde hezearentzat, hala ere XVIII. mendean hazkunde hau egonkortu zen. Artoaren hazkunde honek, beste laboreen garrantzia kendu zuen, hala ere, gariarekin batera, labore landatuenak izan ziren Hego Euskal Herri hezeko nekazaritza lurraldeetan. Bi labore hauen nagusitasuna azaltzeko aurretik azaldutako faktoreek izan zuten eragina.

1771-1775 urteetarako, Hego Euskal Herrian landatzen ziren laboreen %59,50a artoaren, garia ere ugari landatzen zen lurralde hauetan laboreen %39,07koa izanez bere produkzioa. Lehen aipatu bezala, bi laboreen nagusitasun honek, beste labore zein leguminosen beherakada suposatu zuen, hauek %1,42 soilik izanez. Hala ere, artoaren nagusitasun hau ez zen zonalde guztietan berdina izan, Gipuzkoako mendebaldean eta Bizkaiko mendebaldean, garia nagusitzen zitzaion. Gipuzkoan artoaren nagusitasuna ez zen hain nabarmena, artoa eta gariaren arteko erlazioa 1,4/1ekoa zen. Bizkaian aldiz nagusitasun hau azpimarragarriagoa zen hemen bien arteko diferentzia 1,97/1ekoa izanik, hots, bikoitza. Hala ere, Bizkaia eta Araba ipar-mendebaldean gariak nagusitasuna mantentzen zuen batez ere, Urduña, Enkarterrietan adibidez, 0,81 eta 0,87koak ziren artoaren eta gariaren landaketan arteko erlazioak.

Hau aipatuta ideia bat argi azaltzen da, artoa landatzeko hobeagoak ziren sakonak eta hezeagoak ziren bailarak, batik bat hezetasuna gehiago mantentzen zelako, Bizkaian aldiz lurak lauagoak ziren, garia landatzeko aproposagoak (Fernandez de Pinedo & Bilbao Bilbao, 1984, 141-142). Hala ere, teknologiaren hobekuntzaren hedapenak eta landatzeko ziren lurren areagotzeak, produkzioa efikazagoa izatea baliatu zuten. Bestetik gaztainondoan eta sagarrondoan kopuruak behera egin zuen proportzionalki, espazio berriak beste laboreei utziz (Fernandez de Pinedo, 1999, 192-210). Nekazaritzarako erabiltzen ziren luberri berrietan, artoak indar handiagoa hartu zuen, batik bat lurak ez zutelako ustiakuntza intentsiborik pairatu aurreko urteetan. Artoaren ekoizpenaren igoera honek, auto-hornikuntzarako baliabide gehiago ematen zizkien nekazariari, ordura arte ez baitzen auto-hornikuntzara iritsi lurralde honetan, batik bat eskaria handiagoa zelako ateratzen zena baino. Hala ere beherakada garaietan, kanpoko produktuen inportazioak garrantzia hartzen zuen aurreko mendean bezala, baina ez zen hain nabaria kasu honetan. Hala ere inportazio hauek ez burutzeko hainbat ahots sortu ziren 1767-1787 urteen artean, arazo honi konponbidea bilatzeko asmotan. Ekonomiaren berrantolaketa edo errekonbertsioa eskatzen zuten, nekazaritza honi moldatzeko (Fernández Albaladejo, 1975, 171-182). Honen aldarrikapena *Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*-ek egin zuen, *Discurso sobre Agricultura Práctica* sortuz (Discurso, 1768).

Bestetik sagarrondoan atzerakuntza, batik bat laboreak landatzeko luberritze prozesuarengatik, sagardoaren produkzioan beherakada bat izatea suposatu zuen, nahiz eta ipar-ekialdean sagarrondoan kopurua ez jaitsi. Horrez gain, bizi-mailaren

hobekuntzak, beste alkoholadun edarien kontsumoa ekarri zuen, lehen sagardoak betetzen zuen eskaria ordezkatzuz. Fenomeno hau gertatzean, ardoaren kontsumoa igo egin zen, honen produkzioarekin batera. Ardoaren ekoizpenaren igoera aztertzeke orduan, esan beharra dago, bertako udalek eta kontzejuek neurri protekzionistak hartu zituztela sektore hau bultzatzeko, gainera, udalek mahastien ekoizpenaren gainean zerga gutxi kobratzen zituzten, batik bat kanpotik zetorren ardoari konpetentzia egiteko. Bertako ardoak ez zuen garraio gasturik ordaindu beharrik, bertan kontsumitzen baitzen. Hala ere, protekzionismo honek eragin negatiboak izan zituen, hau da, soilik prezioak mantentzean lortzen zen bertako ardoaren kontsumoa, izan ere soldaten gastuak eta uztaroek suposatzen zuten arazoekin, prezioek gora egin zuten. Etekin gehiago ateratzeko asmoarekin, produkzioa jaitsi egiten zuten, prezioak gehiago igoz, baina honek kanpoko ardoen denbora eta kalitatea hobetzea ekartzen zuen bi ardoen arteko prezioak orekatuz, gehiegizko protekzionismoaren ondorio bezala. Horrela txakolinak, garaiaren eta tokiaren arabera garapen ezberdina izan zuen, hau da, ez zen sektorearen hazkunde orokor bat eman baizik eta tokian tokiko lurraldearen arabera aldaketak nabarmenak ziren. Bizkaian, Bilbo, Ondarroa eta Lekeition adibidez, mahasti kopurua nabarmen hazi egin zen, Gernika, Urduña, Bakio, Plentzia eta Sopelan aldiz beherakada agerikoa izan zen, leku batzuetan produkzioa ia desagertzerako, Gernikan kasu. Gipuzkoan beherakada argia izan zen sektore honetan, anitzetan desagertu egin zen bertako ardoaren produkzioa, Asteasu, Berastegi-Eldua, Azpeitia eta Erreterria dira fenomeno honen adibideak. Soilik Deban eta Mutrikun lortu zen produkzioaren igoera txiki bat (Arrizabalaga & Odriozola, 2004, 173-197), baina ia ez zen nabaritu. Horrela beraz ikusi daiteke, leku batzuetan arrakasta izan zuela bertako ardoaren produkzioak, baina, lehendik zeuden leku tradizional batzuetan ekoizpenak beherakada edo desagertpena pairatu zuen, kanpotik (Errioxatik, Nafarroa Hegoaldetik) heldu ziren ardoei konpetentzia ezin eginez. Bizkaiak, Errioxatik inportatzen zituen ardoak gehien bat, Gipuzkoak berriz Nafarroa Hegoaldetik (Huetz de Lemp, 1967, 482-490). Hau esanda, agerikoa da tokian tokiko espezializazioa garatzen hasi zela garai honetan, hots, baldintza fisikoetara moldatzen ziren labore zein bestelako fruitu eta barazkiei lehenetsua ematen zitzaien, produkzioa hobea izateko asmoarekin.

4. Baztango nekazaritzaren Aro Berriko garapena: Artoaren sarreraren inpaktua

Garai honetako testuinguruan, Baztango nekazaritzaren garapena eta honen berezitasunak azpimarragarriak dira. Izan ere, zeukan orografia, luraren konposizioa

eta klimatologiarengatik ez zen zonalde egokiena Europako Aro Modernoko labore garrantzitsuenak landatzeko. Horregatik, aziendak pisu gehiago izan zuen lurralde honetan. Hala ere, bertako populazioa elikatu ahal izateko hainbat aldaketa eta esfortzu egin ziren, batik bat lurralde egokiena ez zelako nekazaritzarako oro har (Arizcun Cela, 1988, 197).

Ez da erreza XVI. mendeko azterketa zehatz bat egitea Baztanen, nekazaritza hizpide duena, izan ere, aurkitzen diren garaiko dokumentuak, anitzetan osatu gabe daude eta horrez gain, sakabanatuak, kronologikoki ordenatzeko konplexutasuna handiagoa da. Hala ere, hauek ordenatuz zenbait ideia atera daitezke garai horri buruz, batik bat ikerkuntza lanak egiteko (Esarte Muniain, 2006, 19).

Baztango kasua nahiko berezia zen, izan ere, beste lurralde batzuetan ez bezala administrazio eta gobernu nahiko autonomoa zen. 1440. urtean, kaparetasun kolektiboa aitortu zitzaien Baztango bailarako herritarrei, batik bat lurralde komunaren eskubide politiko eta ekonomikoak aitortzen zizkiena. Herri bakoitzean, alkate juratu bat zegoen herriaren administrazioaz arduratzen zena. Herri bakoitzean, erabakiak hartzeko, herritarren arteko bilkurak edo *batzarreak* egiten ziren (gaur egun ere bai). Horretaz gain, bailarako agintea kudeatzeko *Batzar Orokorra* zegoen (XI. mendeko komunitateko asanbladan jatorria zeukana), hemen, bailarako *alkatea* (XVI. mendeko bukaera arte ondorengotza bidez pasatzen zen ez bozketa bidez) eta herri bakoitzeko *juratuaz* (alkate juratua) gain, bailarako kargu publikoak biltzen ziren, gehien bat jauregi baten jabeak zirenak, herritar xumeei ez zitzaien uzten instituzio hauetan parte hartzea (*jauregitarrak* edo *barrideak* ez zirenak). Administrazioa konkretuagoa izateko *Ordenantzak* egiten zituzten, hots Batzar Orokorrek egindako legeak bailararen botere politikoa zein ekonomikoa kudeatzeko. *Jauregitarrek*, eskubide komunalez gain, beraien aprobetxamendu partikularreko eskubideak eta ondasunak zituzten. Hauetaz gain, *bizilagunen* kolektiboa zegoen, hots, herritar xumeak zirenak. Hauek ez zeukaten eskubide politikorik, gainera, lur komunalen aprobetxamendua mugatua zen haientzat, baimenik ez bazuten ezin baitzituzten lurralde komuneko lurak erabili.

Jauregitar-en kolektiboa gizarteko sektorerik boteretsuena zen, hauek XI. eta XII. mendeetan baztandar tropak agindu zituzten ondorengoak ziren, horregatik hainbat *ohore* eta eskubide errealak zituzten, batzuk Baztango *jaun* bezala kontsideraturik zeuden, hauek leinuen buruak ziren eta erregeak eskubideak onartu zizkien zenbait

fabore egiteagatik (Arizcun Cela, 1988, 46-47). Hainbat pribilegio zituzten, batetik, ez zuten kuartelen zergarik ordaintzen, bestetik, lehentasuna zeukaten *alkatearen* ondoan jartzeko *Batzar Orokorretan*, *juratuek* baino lehentasun handiagoa zeukaten. Bestetik zenbait *jauregitar*-ek beraien zonaldeko elizen nagusigoa zeukaten, honen adibide dira Beorlegiko Baroia, Arizkungo elizako jabegoa zuena, Xabiergo Kondea, Azpilkuetako elizaren nagusigoa zuena eta Erratzuko Apeztegia jauregiaren jabe, Erratzuko elizan agintzen zuena¹. Botere honekin, beraien menpeko parrokien errektorearen gaineko agintea zuten eta eliza horretako hamarrenak kobratzeko eskubidea aitorturik zeukaten².

XVI. mendeko Baztango errota, *barrideen* taldeei errentan ematen zitzaizkien, beti ere laboreen ekoizleak izanda. Errota hauen errenta enkanteen bidez egiten zen. Hala ere jauregi batzuetako jabeak errota zituzten beraien lurraldeetan, Arizkungo Ursuako jauregiak errota bat zeukan bere menpean, bestetik Irurita Jauregia palazioaren jabeak, errota bat zuen, baina honen jabetza ez zen erabatekoa errotaren erdia nekazari ekoizleena baitzen³.

Lurraldearen aprobetxamendu komunalaren inguruan, esan beharra dago Baztango Ordenantza zaharretan⁴ bi lurralde mota banatzen zirela. Batetik, mugaturik zeudenak (*amojonadas*), hauek aprobetxamendu pribaturako zirenak, eta bestetik lurralde komunalak (*comunes*), hauek erabilpen komunalekoak ziren. Mugarririk zeuden lurraldeen jatorria, zenbait etxek luberriturik zituzten lurralde zatietatik dator, nahiz eta urte zehatza finkaturik ez egon. Batzar Orokorrek aprobetxamendu pribatuko lurrak bezala izendatu zituzten, hortik kanpo zeuden lurrak komunalak zirela azpimarratuz. Hamarrenaren laurden bat ordainduta zituzten lurrek, lur partikularrak zirela ebatzi zituzten Batzar Orokorrek Ordenantzetan, hala ere lur pribatu hauei buruzko xehetasun gutxi ageri dira Ordenantzetan, lur komunalen gaineko ezaugarriak argi azaltzen dira haietan ordea. Lur komun hauek, aprobetxamendu ezberdinak zituzten hauen artean, desberdinak ziren bere erabilpenaren arabera.

Luberritutako lur komunak, laborantzarako edo sagarrondoetarako erabiltzen zirenak, barride bakoitzagatik eta modu pribatuan, barride bakoitzak mugatzen zituen bere

1 Iruñeko Diozesiaren Artxibategia. Iruñeko Gotzaindegiaren Liburua. Patronatu-Erreala. 1753. 19 eta 44. Folioak.

2 Iruñeko Katedralaren Artxibategia. Baztan, Bortziriak eta Doneztebeko tazmien kutxa. 1776. "Apeo antiguo de rentas".

3 Markesgoaren Dorretzeko Artxibategia. Jauregia. Irurita. 57. Liburua. Jauregia jauregiaren menpeko borda baten errenta kontratua J.J. Alemani egina. 1815-1825.

4 Baztango Udal Artxibategia. 71. Kutxa.

aprobetxamendu mugagaberako. Baina urte batez landaketarik gabe edo lurra landu gabe bazegoen edozein barrideek lur horren gaineko eskubidea kentzen ahal zion. Lur hauek nahiz eta mugak jarriak izan, irekita egon behar zuten, landatzen ez zen garaian, haziendaren probetxurako erabiltzen baitziren. Lurralde horien gaineko eskubideak beste barrideei saltzen ahal zitzaizkien, baina gauza materialak bakarrik, hots, eraikinak, obrak, zerrakurak etab. Baina ez lur horren jabegoa, hau, komuna baitzen.

Abeltzaintzako bordei dagokienez, bordako eraikina partikularra izaten zen, eta bordari atxikirik zegoen lur eremua komunala, hala ere edozein barrideek erabiltzeko eskubidea zuen. Bordaren eraikinari dagokionez, bere izaera pribatua kolokan jartzen zen, izan ere haren jabeak ezin zuen giltzaz giltzatu, eta beste barride baten azienda sartu nahi ezkeru posiblea zen. Hala ere, bordaren jabeak bere hazienda edo nekazaritza produktuak bertan edukiz gero, erabilpen partikularra errespetatzen zitzaion.

Abeltzaintzarako erabiltzen ziren lur eremu altuetan, hauek udaberri zein udan erabiltzen ziren baita urrian ere, ezkurra zuten eremuak. Hauek denak lur komunalak ziren eta abereak leku hauetara garraiatzeko orduan, barrideek bere aziendak biltzen zituzten eta artzain batek eramaten zituen mendira. Guztiz debekaturik zegoen aziendarako bazkaleku ziren larreen erabilpen partikularra.

Baztango lur komunal guztiak, bailara honen barrideek aprobetxatzen ahal zituzten, ez zegoen tokian-tokiko ezberdintasunik, hau da herri bakoitzak bere lur komunala ez zeukan soilik aprobetxagarri baizik eta bailara guztikoa. Hau ez zen Nafarroako Zaraitzu (Martín Duque, 1963, 155-172) eta Erronkariko (Idoate, 1977, 167-170) bailaretan pasatzen, hemen lur komunal bakoitza herri bakoitzari atxikia baitzegoen, hots, Baztango kasuan bailara guztikoa zen, horrek egiten zuen bereizgarri erabilpenaren arloan.

XVI. mendea oparoa izan zen Baztanen, batik bat tropa gaztelarrek 1522an Amaiurko Gaztelua hartu ondotik eta honek suposatzen zuen gerraren amaierarekin. Garai honetan, Gaztelarren armada monarkikoa Baztango lurraldeetan geldituta, basoaren ustiakuntza areagotu egin zen. Batetik, nekazaritzako lurren eta abeltzaintzako larreen beharrak, basoak moztera eraman ziren Baztandarrei. Bestetik, armada monarkikoak bere beharra asebetetzeko egurraren ustiakuntzari ekin zion, batzuetan indarra erabiliz. Honen aurrean Bailarako autoritateek ez zuten oztopo handirik jarri eta bestetik, bailarak zituen zorrak ordaintzeko errentagarria suertatzen zitzaaien mendiak alokatzea

zuhaitzak hortik ateratzeko. Hala ere, egurraren ateratze masibo horrek, kezka piztu zuen herritarren artean eta arazo honen gaineko kontzientzia hartzen hasi ziren (Esarte Muniain, 2006, 187). Baso soiltze honen ondorioz nekazaritza, baina batez ere abeltzaintzako, eremuak ugaritu ziren, nekazaritza lurak ibaiaren erriberan kokatzen baitziren, hots, herrien ondoan, azindarako larreak berriz mendialdean kokatzen ziren, soildutako basoen lurak okupatuz. Nekazaritzarentzat mende oparoa izan zen hau, urteen poderioz laboreen prezioak areagotu egin ziren, Amerikaren aurkikuntzak onurak ekarri baitzituen Espainiako Koroaren lurrentzat. Hazkunde ekonomikoaz baliatuta, hazkunde demografikoa izan zen biztanleria urtean %0,64 igoaz 1427tik 1553ra (Arizcun Cela, 1988, 68). Hala ere hazkunde hau, ez zen erabatekoa izan mende guztian zehar, azken herenean hazkunde hori beherakadan bihurtu baitzen. Izurriteak eta bestelako heriotzek, populazioa jaistea ekarri zuten, hauek ondoko urteetan produzitu ziren: 1558, 1560, 1564-65, 1568, 1571-72, 1579-82 eta 1586an. Beherakada honek, 1612 arte iraun zuen, hogeit eta hamasei etxe hutsak geratzeraino (Orta Rubio, 1980, 137-139).

XVII. mendean sartuta, esan beharra dago, nekazaritza aldaketek eta luberritze berriek ekarri zutela Baztan lehenengo sektoreko hobekuntza batera, artoaren sarrerak suposatu zuenarekin batera. Garai horretan lantzen ziren laboreak zein bestelako fruituak ikusteko, 1657ko Zigako elizako errektorea zen Pedro de Bertiz-en inbentarioa argigarria da. Ordura arteko hamarrenen zerrendak oso gutxi baitira. Inbentario honetan honako labore hauek agertzen dira: 130 gari artoa, 60 artoa arto, 60 artatxiki artoa, 12 artoa olo, 50 artoa gaztaina eta 100 erreal balio zituen sagar kantitatea⁵.

Zifra hauek ikusita, labore nagusia garia zen. Zigan behintzat produkzio handiena zuena. Hamarrenez gain, etxeetan ogia egiteko erabiliko zuten, baina gariaren ogia gutxi batzuek izango zuten urte guztirako ez baitzuten normalean labore honen soberakinik izaten etxeko kontsumoaz gain. Honenbestez garai honetan ogia artatxikiz edo artoaz egiten zuten, dieta osatzeko. Honen kasu argiak dira, Gartzaingo Hualdea⁶ eta Elizondoko Ansorena⁷ etxeetan gertatzen diren kasuak. Bietan gariaren faltak, artatxikia landatzen zutela adierazten du Bestalde, 1657ko artoaren presentzia Baztanen, Zigako hamarrenaren dokumentuarekin frogatuta dago. Jakina da, XVI. mendean garagarra

5 Nafarroako Artxibategi Orokorra. Notario-protokoloak. Elizondoko Notarioa. Felipe Narvarte Iturbide eskribaua. 1658. urtea. 78-84 folioak.

6 Nafarroako Artxibategi Orokorra. Juan Aldecoa Echaide eskribaua. 1661. urtea. 104 eta 105 folioak

7 Nafarroako Artxibategi Orokorra. Juan Aldecoa eskribaua. 1660. Urtea. 27-42 folioak.

lantzen zela Baztango lurraldeetan, horren testigantza zuzena Erratzun aurkituz, 1577 eta 1583ko primizietan⁸. Hala ere labore hau kopuru txikietan lantzen zen, hots, ez zen landutako gariaren %2ra iristen. XVII. mendean ez da labore honi buruzko erreferentziarik aurkitzen Baztanen.

Lihoaren ekoizpenaren zantzuak aurkitzen dira baita ere. Testigantza hau, Elizondoko Etxaide auzoko Iturriaga etxearen auzi batetik hartua da 1657ko urriak 29an. Bertan Urdazubiko monasterioarekin izandako auzi batean agertzen da lihoaren presentzia, monasterioko prioreak lihoaren zati bat eskatzen baitzuen hamarrenerako⁹. Baina labore honen produkzioa ere txikia zen eta Iturriagako etxean ageri den bezala auto kontsumorako bideratua egongo zen, hots, etxeko arropak egiteko. Honen osagarri bezala ardiaren artilea erabiltzen zuten arropagintzarako, hau aldiz aspaldidanik komertzializaturik zegoen.

Baratzeek ez zuten lurralde handirik okupatzen, kasu gehienetan etxeko kontsumorako erabiltzen zuten. Soberakinak soilik gutxi batzuk lortzen zituzten, lur eremu txikiak baitziren baratzeari eskainiak garai horretan. Eskuratzen ziren produktuak ondokoak ziren: leguminosoak, barazkiak, patatak, tomateak, babak, babarrunak, etab. Honen testigantza zuzena Elizondoko 1544ko Ordenantzetan aurkitzen da¹⁰. Herri batzuetan Basaburuan (Aniz, Ziga, Berroeta eta Almandoz) bezala, ez da baratzearen testigantzarik garai horretarako, hala ere hauek nekazaritza lur bezala hartuak egongo ziren garaiko zenbaketetan, ohikoa baitzen garai horietan zenbait daturen okultazioa. Sagarrondoei dagokienez, bailaran garai horretan gehien kontsumitzen zen edariaren lehengaia zen, edaria, *pitarra* zen, hau da sagardoa eta uraren arteko nahasketa. Normalean etxe bakoitzak bere sagarrondoak zituen, eta gehienetan bertan produzitzen zuten sagardoa eta pittarra. Hala ere, sagarrondoek uzta txarra gertatuz gero erostera beharturik zeuden. Nekazaritza lurretatik 2.400 errege-lur (*robada*), sagarrondoek osatzen zuten, tarteka lur hauetan sagarrondoez gain laboreak landatzen zituzten. Nahiz eta sagardoa eta pittarra gehien kontsumitzen ziren edariak izan, ardoa ere kontsumitzen zen, 1544ko Elizondoko Ordenantzetan ardoari eta mahastiei aipamena egiten zaie. Ziur aski ardo hau kalitate kaxkarrekoa izango zen, baldintza meteorologikoak ez baitziren hoberenak mahastiak landatzeko. Ondoko urteetan mahastien faltak eta batez ere XVIII. mendean,

8 Erratzuko Elizako Artxiboa. 1.go kontu-liburua. 1567-1885.

9 Iruñeko Diozesiaren Artxibategia. Auziak. "Elizondoko hamarrenen errentatzailearekin izandako auzia". Treviño 399-3.

10 Baztango Udal Artxibategia. Elizondoko Ordenantzak. 1544. 71. Kutxa.

ardoa Frantziatik edo Nafarroako Erriberatik inportatuko zuten, hots Gipuzkoan garai hartan egin zen bezala (Huetz de Lemps, 1967, 482-490).

Gaztainondoei dagokionez, gaztaina gizakien elikadurarako oso garrantzitsua zen garai hartan, batez ere gariaren uzta txarra zegoen urteetan. Honek, elikadura falta baretzen zuen eta honekin batera gaixotasunak eta heriotzak saihestea ahalbidetzen zen, goseteak murriztuz. 1603ko Ordenantzetako 43. Kapituluari azpimarratzen den bezala¹¹.

Gainontzeko lurrak, iratze-zelaiak, abeltzaintzarako lurrak(saroiak eta bordak) eta basoa ziren. Iratzeak abereen kamantzak eta ongarri gisa erabiltzen ziren nekazaritzarako. Saroiek beherakada jasan zuten XVI. mendetik aurrera, nekazaritzarako luberritze berriak zirela eta . “Ordenantza Zaharretako” 11. Kapituluari, saroiaren desagerpenaren aurka egiten du Batzar Orokorrak, hauek ez deuseztatzen eskatuz, batik batik nekazaritzan zeukaten garrantziarengatik¹².

Hala ere XVII. eta XVIII. mendeetan garrantzi gehien izan zuen laborearen artoa izan zen. Beste laboreen artean hainbat abantaila baitzuten. Batetik, Baztan bezalako zonalde heze batentzako hobeto moldatzen zen beste laboreak baino. Bigarrenik pertsona eta animalientzako janari gisa erabiltzen ahal zen, hau da, landarearen hostoak eta hoziak animalientzako alimentu gisa balio zuten. Hirugarrenik, laborearen errendimendua gariarena baino bi aldiz handiagoa da lurralde honetan, kontuan izanik, XVII. mendean garia laborerik garrantzitsuen zela Baztanen. Azkenik, artoak sustraiak barneratuagoak izanik, lurrazalaren gaineko zona gutxiago gastatzen zuen, beste laboreekin tartekatzen aukera ematen zuen honela, gariarekin kasu, sustraiak ez baitzuten hain sakonak. Bestalde, ongarritze intentsiboagoa behar zuen labore honek eta landatzerako orduan, 30-40 zentimetro gehiago goldatu behar zen (Arizcun Cela, 1988, 208).

Artoa landatu zen lehen aldia 1645ean izan zen, gaurdaino aurkitu den dokumentazioaren arabera. Izan ere, artoaren testigantza agertzen da, Juanes Sagardibelz-en hitzetan, Urdazubiko Monasterioko eta Belateko Priorerriaren artean, Elizondoko lur eremu batzuen inguruan¹³:

11 Baztango Udal Artxibategia. Baztango Baitarako Ordenantzak. 1603. 71. Kutxa.

12 “Ordenantza Zaharretako” 1603ko Ordenantzen barruan bildurik daude. XVI. mendeko bigarren erdialdean eginak ziren.

13 Iruñeko Diozesiaren Artxibategia. Aipatutako auzia. Iruñeko Gotzaindegiaren Liburua. Patronatu-Errealak. 1753. 19 eta 44. Folioak.

“... los que el dicho Erratzu (arrendador de los diezmos del Prior de Belate) llevó el tercer año han sido los de este presente de cuarenta y cinco y el último año pasado tuvo en la dicha pieza mijo maíz y del diezmo de él llevó el dicho Juanes de Mutilarena, uno de los arrendadores del dicho convento Real (Urdax) y de los diezmos del mijo que en su tiempo que lleva la dicha pieza, fuera del último año no sabe cual de las dos se ha pagado...”

Aipamen honetatik, bi ideia ateratzen ahal dira, batetik, artoaren landaketa garai horretan txikia zela eta bestetik, artatxikiaren ordezkotzat laboretzat landatzen hasi zela, hots, hasieratik ez zela gariarekin tartekatzen. Gipuzkoako ipar-ekialdean 1610etik aurrera ezagutzen dira artoaren landaketak kasu batzuetan gariarenari gailenduz (Bilbao Bilbao, 1977, 113-114). Horregatik ez zen zaila izan Baztanen XVII. mendeko berrogeiko hamarkadarako labore hau lantzen hastea. Hala ere Floristanek (1970, 9), 1669ko Ordenantzetako 38. kapituluak kokatzen zuen artoaren landaketaren hasiera, ordura arte garia eta artatxikia labore nagusitzat jotzen. Zigako 1658ko hamarrenak, Gartaingo Hualdeako (1661), Elizondoko Ansorena eta Iturriagako (1660) inbentarioek teoria hau deuseztatzen dute, ordurako artoa hamarrenetan agertzen baitzen, arroetan neurtua, aurretik aipatu bezala¹⁴. Hau izango zen 1646-1678 urte artean demografia hazkunderaren arrazoi bat, populazioa igo egin zen urte hauetan. Bertzetik hazienda kopuruak ere gora egin zuen, artoaren landaketak jakia ematen baitziren haziendari, baina ereindako lurrek abonatu gehiago behar zuten, artoak gariak baino ongarri gehiago eskatzen baitzuten (Arizcun Cela, 1988, 211-212).

XVII. mendeko landatzeko teknikan, lugorria erabiltzen zen, urte eta aldizkako teknika hain zuzen, hau da, urte batez landatu egiten zen eta ondokoan lugorri utzi. Landatzen zen urteetan, laboreen txandakatzea ohikoa zen, hau da, garia eta artatxikia, artoa eta oloa, sagarrondoak eta laboreak (nahiz eta sagarrondoko itzalak laboreentzat onak ez izan), batik bat tenperatura baxuei eta lurraren intentsitate faltari aurre egiteko. Ohikoa zen garai horretan, nekazaritza ustiategi batean pieza ezberdinek errendimendu desberdinak izatea, hau da, batzuk modu intentsiboago batean lantzen ziren beste batzuk baino, beti ere ongarriak eta lan-eskua kontuan hartuta. Ahalik eta intentsuenen saiatzen ziren nekazaritza lurak esplotatzen, beti ere zeuzkaten mugak kontutan hartuz. XVIII. mendean sistema hau aldatu egin zen, batik bat ongarrietan berrikuntzak izan zirelako.

¹⁴ Nafarroako Artxibategi Orokorra. Notario-protokoloak. Elizondoko Notarioa. Juan Aldecoa Echaide eskribaua. 1660. urtea. 217-234 folioak.

Ordura arte erabiltzen ziren ongarriak animalia jatorrikoak edo jatorri begetalekoak ziren. Artoaren landaketen areagotzearen ondorioz, basoa soiltzen hasi ziren bertatik ongarri begetalak ateratzeko asmoz, animalien ongarriekin ez baitzen nahikoa. Baso soiltze honek nekazaritza eta abeltzaintzarako lurak areagotzea ekarri zuen. Bestetik eta inguruko bailaretan gertatzen den bezala, Bortzirietan kasu (Mikelarena Peña, 1988, 136), karearen erabilpenak ereindako lurren errendimendua hobetu zuen, horretaz gain, bere erabilpena laster zabaldu zen Baztandarren artean, nekazaritza intentsiboagokoa posible egiten zuelako. 1711ko Ordenantzak karearen erabilpen handiaren aipamena egiten dute, basoarengatik kezkatuta, gisulabeak erabilpen handia izan zutelako garai hartan¹⁵.

XVIII. mendean ez zen aldaketa handirik eman Baztango nekazaritzan, baina hala ere berrikuntza batzuk eman ziren. Batetik, laborantzen aldaketa bat eman zen, hau da, bi laboreen nagusitasuna azpimarratu zen: artoarena (bereziki) eta gariarena. Fenomeno honek beste laboreen atzerakuntza suposatu zuen (proportzioetan). Produkzioaren areagotzeak lurraren erabilpen pribatuan eragina izan zuen, produkzioa areagotzeko modu pribatu batean ustiatzen baitzituzten nekazaritza lurak. Iruñeko apezpikutzak fenomeno honen testigantza zuzena adierazten du 1776-1781 urteen artean egiten den hamarrenen kontaketa¹⁶. Bertan labore nagusi bezala artoa agertzen da, gariaren produkzioa bikoiztuz. Bestetik, artatxikiaren produkzioa anitz jaitsi zen proportzionalki, artoaren finkapenak labore hau baztertu baitzuen. Lihoa, sagarrondoak, gaztainak eta oloa agertzen dira, baina hauek proportzio oso txikian landatzen dira XVII. mendeko kantitateekin alderatzen baditugu. Arbiaren landaketetan ere aldaketak eman ziren, hau modu intentsuago batean landatzeko garrantzitsua baitzen gizaki zein animalientzat. Bestetik, Nekazaritza lurren zabalkunde honek, XVII eta batez ere XVIII. mendeko luberritzeekin abeltzaintzarako larreen gutxitzea ekarri zuen, zenbait arazo sortuz XVIII. mendeko bukaeran. Esan beharra dago XVI eta XVIII. mendeen artean, landaketa lurren kantitatea anitz hazi egin zela Baztanen. Hala ere hazkunderik handiena XVIII. mendeko lehen erdian eman zen, izan ere bigarren erditik aurrera sagarrondoek zein abeltzaintza larreek luberritzeak jasan zituzten, baina lur hauek kalitate baxuagokoak ziren laboreen nekazaritza praktikatzeko. Bestetik sagarrondoan atzerakuntza, luberritzez gain, beste arrazoi batekin lotu beharra dago, hots, garai

15 Baztango Udal Artxibategia. Baztango Bailarako Ordenantzak. 1711. 71. Kutxa.

16 Iruñeko Katedralaren Artxibategia. Baztan, Bortziriak eta Doneztebeko tazmien kutxa. 1776, 1777, 1779, 1780 eta 1781 urteak.

honetan Nafarroako Erriberako ardoen inportazioek sagardoaren ekoizpen eta kontsumoan beherakada bat suposatzen dute, nahiz eta fenomeno hau ez zen guztiz gertatu, hots, sagardoa ekoizten eta kontsumitzen jarraitzen zen. Baratzeetan hazkundera eman zen baita ere, nahiz eta kontuan hartuz azkeneko bi mendeetan populazioa hazi egin zela, normala da lur eremu gehiago baratzeari eskaintzea, 1607ko apeoko baratzeak gehienetan eremu partikularretan egongo baitziren, XVIII. mendekoak berriz lur komunaletan zeuden gehien bat (Arizcun Cela, 1988, 246-247). Garagarra eta artatxikia bezalako laboreak XVIII. mende bukaeran ez dira landatuko, okupatzen zituzten landak lurrak artoari, gariari edo lihoari eskainiz.

Lurralde komunalean atzerakuntzak eman ziren. XVI. eta XVII. mende hasierako Ordenantzetan argi ikusten da Batzar Orokorrek interes handia zutela lurralde komunalaren defentsan, interes pribatuen aurrean. Batez ere abeltzaintzarako larre komunalen interesetan. Hala ere XVII eta XVIII. mendeetan nekazaritza lurren mugarritzea gertatzen da hauek modu pribatuan ustiatzeko. Honekin batera mendian zeuden saraien eta borden pribatizazioa ematen da *jauregitar*-en partetik, hauek Baztango instituzioetako kontrola izaki, mendialdeko lur-komunak bere aprobetxamendurako erabiliko dituzte, herritarrei errentan emanez. Honek mendialdeko baserrien sortzea ekarri zuen, hots, toki dispertsoetako populamendua, ordura arte baserriak populazio nukleoan ondoan kokatzen baitziren. Mendialdeko baserri hauetan, errenta bat ordaintzen zioten bordaren jabeari, ondotik jabetza honek ekartzen zituen larreak, landaketarako lurrak, fruta-arbolak, etab. ustiatzen zituzten, lur-komunaletan beraien eskubideak izateaz gain (Floristan & Imizcoz Beunza, 1993, 212-213).

5. Ondorioak

XVI. mendetik aurrera Baztango nekazaritzak bere garrantzia handitua ikusi zuen batik batik XVII. eta XVIII. mendeetan. Kronologia eta garapen iruditsua izan zuen Hego Euskal Herriko zonalde hezeko zonaldearekin, hala ere bere berezitasunak zituen, batik batik sistema politiko bereziarengatik.

Erabiltzen ziren teknika berriak eta basotik zein abeltzaintza larreetatik luberritutako eremu berriak nekazaritzara bideratu ziren, gehien bat artoaren eta gariaren produktiora bideratuz. XVI. mendean lurralde komunaren defentsa egin zuten Batzar Orokorrek, gehien bat barrideen presioak bultzaturik, hauek bere eskubideak bermatuta ikusi nahi baitzituzten. Fenomeno honen testigantza zuzena garai horretako Ordenantzetan

islaturik dago. Hala ere lurraldearen pribatizaziorako jarduna ohikoa zen baztandarren artean, hots, batez ere, mugarritutako nekazaritza lurralde komunaletan. Jauregiek abeltzaintzarako saroï batzuk, lehen komunalak zirenak pribatizatu egin zituzten, ereiteko lurrekin batera.

XVII. mende hasieran, ekonomiako sektore garrantzitsuena abeltzaintza zen, jarduera hau babesteko Ordenantzak erabili zituzten Batzar Orokorrek, batik bat lurralde komunalaren jabetza mantentzeko. Abereei lehentasuna ematen zitzairen nekazaritzaren kalterako, hauek ereindako lurretan sartzen baitziren behin nekazaritza aktibitatea bukatuta. Hala ere, nekazaritza aktibitatea berebizikoa zen populazioaren auto-hornikuntza sustatzeko.

Artoaren sarrerak, lehenengo testigantza 1645eko izanik, garapenaren ate bat ireki zuen bertako nekazaritzan. Labore hau, beste batzuk baino hobe moldatzen baitzen Baztango klimatologiara, errendimendua handituz eta honekin batera elikagaiak produzituz gizaki eta abereentzat. Artoak, artatxikiaren lekua hartu zuen, ez zion gariari kalterik egin, izan ere artoa landatu zen lurraldeetan basoa edo abeltzaintzarako larreak zeuden, luberritzeen ondorioz nekazal aktibitaterako aprobetxatuak. Inpaktu honek, gorakada fase bat suposatu zuen 1646 eta 1678 urteen artean, batik bat nekazaritzarako lur hobeak zituzten etxeetan. Horrela, etxe hauetan seme-alaba gehiago izan zituzten, nekazaritzarako lan-esku gehiago izanez. Hala ere, hazkunde hau ez zen guztizkoa izan, errekurtsu gutxi zituzten nekazariak ez zuten horrelako gorakadarik sentitu, batik bat Baztanera emigratu zutenak, *barrideen* eskubideetatik kanpo geratu baitziren. Hazkunde honekin batera, lurak lantzeko tendentzia indibidualista bat zabaldu zen, hots, lur komunalen kalterako. Nekazaritzarako luberri berriak modu indibidualetan ustiatzen ziren, nahiz eta lurralde komunaletan egon, hauek mugarrituak zeuden. Gauza berdina gertatu zen abereentzat zeuden mendiko sarioekin, hauek bere erabiltzaileengandik pribatizatuak izan ziren pixkanaka, bere erabilpenagatik errentak kobratuz. 1664. urtean, lur komunalen salmenta eman zen, Koroarekin zegoen zorra ordaintzeko. Pribatizaziorako joera honek, herritar xumeengan izan zuen kalterik handiena, batik bat abeltzaintzarako larreak pribatizatu zirelako, liskarrak sortuz garaiko Batzar Orokorretan herritarren eta agintarien artean (Arizcun Cela, 1988, 373).

Behin artoaren inpaktua amaituta, beherakada etorri zen XVII. mende bukaeran eta XVIII. mende hasieran. Herritar xumeentzat(*jauregitarrak* edo *barrideak* ez zirenak),

elikagaiak lortzeko zailtasunak areagotu egin ziren, gariaren prezioa anitz igo baitzen momentu horretan. Hala ere nekazaritza produkzioak populazioaren hazkundera mantentzen jarraitu zuen. Ondorengotza Gerraren ondorioz, heriotza-krisia areagotu egin zen, batez ere 1710-12 eta 1724-25 urteetan, Gudak iraun bitartean inflazioaren hazkundera gertatu zen, gerora, deflazioan bihurtu zen gerra bukatu ondotik. 1728tik 1788ra arte biztanleriak hazkundera xume baina egonkor bat izan zuen Baztanen %0,19 igoaz. Urte hauetan Baztango oligarkiaren papera nabarmendu zen, batez ere Madriler eta Ameriketara izandako emigrazioagatik. Hauek, noblezia tituluak eta jauregi berrien izendapenak jaso zituzten, haien familiako etxeetan. Baztango instituzioetan paper erabakigarria jokatu zuten, gehien bat zeukaten botere ekonomikoagatik, XVI. mendeko *jauregitarrek* ez bezala (Caro Baroja, 1969, 243-257).

1776-1781eko hamarrenen azterketak argi utzi zuen artoaren nagusitasuna, gariaren produkzioaren gainetik jarriz eta zenbait laboreen desagertzearen eraginez (garagarra eta artatxikia kasu). Hala ere nekazaritzako hazkunderik handiena XVIII. mende hasieran eman zen, 1750tik aurrera honen geldotasuna nagusituz. Garai honetan, nekazaritzarako lurren areagotzea azpimarratu zen, batez ere sagarrondoaren eta abeltzaintzarako larreen kalteetan. Nahiz eta garai hau nekazaritzarako garai oparoa izan, 1780an ez zeukan gaitasunik bailarako populazioa hornitzeko, hau Frantziara egindako artilearen esportazioaren bitartez konpondu egin zen, laboreen inportazioa erraztuz.

Nekazaritzaren hazkundera hau, luberritze berrietan oinarritu zen, batik batik artoari bideratuta zegoen prozesua izan zelarik. Bestetik ardi eta behi-haziendaren hazkundera ongarri produkzioa areagotzen zuen karearen erabilerarekin batera. Hala ere XVIII. mendeko azken bi hamarkadetan beherakada gertatu zen, lurrak agortzen hasi baitziren eta klimatologia kaxkarrak ere bere eragina izan zuen. 90eko hamarkadan krisialdia pairatu zuen Baztango populazioan, batetik 1774an behi-aziendak izurrite latz bat pairatu zuen ia desagertzera, bestetik nekazaritza ereduak beheraka egin zuen lurren emankortasun faltagatik. Bestalde Konbentzio Gerrak (1793-95), bertako produkzioa kaltetu egin zuen, batik batik gerrak suntsitutako lurrengatik. Hala ere kalte gehienak abereetan (zaldiak eta behiak) eta basoetan izan ziren.

Egoera honek XIX. mendean konponbidea bilatzera bultzatu zituen baztandarrak, nekazaritzarako lurren areagotze bat eman zen, eta bestetik mandoen nekazaritzarako erabilpena hazi egin zen, behi-aziendaren faltagatik. Garraiorako animalia hobeak ziren

hauek, nekazariak bere lanbideko lanak bukatu ondotik, garraiolari gisa aritzen ziren askotan, eta hauen erabilera ohikoa bihurtu zen. Mandoek, lana azkarrago egiten zuten behiek baino, horrek egoera kontrolatzea ahalbidetu zuen. Nekazaritza lurraldeen areagotzearen ondorioz, lurralde komunalak pribatizazioak jasan zituen, batez ere Independentzia Gerra (1808-1814) bitartean. Horrela 1832ko ordenantzetan, lurren gaineko mugarritzea ahalbidetu zen, tasa urriak ordaintzearen truke. Fenomeno honek, ahalmen ekonomiko handia zuten etxeen nagusitzea ekarri zuen, desberdintasun soziala handituz. Ordenantza hauen bitartez, nekazaritza eta abeltzaintzako lurren pribatizazioan eragina izan zuten, probetxu partikularreko lurrak, pribatizatuak geratu baitziren, basoak eta nekazaritza zein abeltzaintzarako egokiak ez ziren lurrak soilik komunalean geratuz. Gaurko egunean hauek dira Baztanen geratzen diren lur komunalak, bertako lurraren %83a suposatuz (Arizcun Cela, 1988, 30).

6. Bibliografia

Aragon Ruano, A. (1999). Basoa Euskal Herriko historian zehar. *Uztaro* (29), 25-38.

Aragon Ruano, A. (2015). El sector agrario Gupuzcoano en la encrucijada de los siglos XVI y XVII. *Lurralde: Investigación y espacio* (38), 89-116.

Aragon Ruano, A. (2009). *La ganadería guipuzcoana durante el Antiguo Régimen*. Bilbo: EHU.

Aragon Ruano, A. (1999). Los Podavines: Labradores y Jornaleros en San Sebastián durante los Siglos XV al XVIII. *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián* (33), 11-32.

Arizcun Cela, A. (1988). *Economía y sociedad en un Valle pirenaico del Antiguo Régimen, Baztán 1600-1841*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

Arizcun Cela, A. (1988). El sector agropecuario de la Euskalherria Peninsular durante el Antiguo Régimen. *Ekonomiaz* (9-10), 13-34.

Arrizabalaga, S., Odriozola, L. (2004). *Estudio histórico sobre la producción de vino en Gipuzkoa*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentua.

Bilbao Bilbao, L. M. (1977). Crisis y reconstrucción de la economía vascongada en el siglo XVII. *Saioak, Revista de Estudios Vascos* (1), 157-180.

Bilbao Bilbao, L. M. (1981). La introducción y expansión del maíz y su incidencia en la Economía del País Vasco. en *Historia General del País Vasco, VI*, 45-65.

Caro Baroja, J. (1969). *La hora navarra del siglo XVIII* (I. bol.). Iruñea: Príncipe de Viana.

(1768). *Ensayo de la Sociedad Bascongada de los Amigos del País : año 1766, dedicado al Rey N. Señor*. Vitoria: Thomas De Robles.

Díaz de Durana, J. R. (1998). El mundo rural guipuzcoano a final de la Edad Media: progreso agrícola, gestión y explotación de la tierra. *La España Medieval* (21), 69-70.

Díaz de Durana, J. R. (2001). Para una historia del monte y del bosque en la Gupúzcoa bajomedieval. Los seles. Titularidad, formas de cesión y de explotación. *Anuario de estudios medievales* , I (31), 49-74.

Esarte Muniain, P. (2006). *Como vivían los baztaneses en el siglo XVI*. Elizondo: Nabarralde.

Fernández Albaladejo, P. (1975). *La crisis del Antiguo Régimen en Guipúzcoa*. Torrejón de Ardoz: AKAL.

Fernandez de Pinedo, E. (1999). *Euskal Herriko ekonomi hazkundera eta gizarte-aldaketak (1100-1850)*. Bilbo: UPV/EHU.

Fernandez de Pinedo, E., Bilbao Bilbao, L. M. (1984). La Producción Agrícola en el País Vasco Peninsular (1537-1850). Tendencia general y contrastes comarcales. Una aproximación. *Vasconia: Cuadernos de Historia-Geografía* (2), 83-198.

Floristan, A., Imizcoz Beunza, J. M. (1993). La comunidad rural Vasco-Navarra (s. XV - XIX): ¿un modelo de sociedad? *Mélanges de la Casa de Velázquez* (29), 193-215.

Floristan, A., Imízcoz, J. M. (1993). La sociedad navarra en la Edad Moderna. nuevos análisis. Nuevas perspectivas. *Príncipe de Viana. Anejo* (15), 11-48.

Floristán, A. (1970). Influencias pastoriles en el paisaje rural del Valle de Baztán. *Pirineos* (95), 3-45.

- García de Cortazar, J. A. (1966). *Vizcaya en el siglo XV. Aspectos económicos y sociales*. Bilbo: Bizkaiko Aurrezki Kutxa.
- Huetz de Lempis, A. (1967). *Vignobles et vins du Nord-Ouest de l'Espagne*. Bordele: Institut de Géographie Faculté des Lettres de Bordeaux.
- Iriarte, E., Narbarte, J., Peña-Chocarro, L., Quiros, J. A. (2019). On the origin of rural landscapes: Looking for physico-chemical fingerprints of historical agricultural practice in the Atlantic Basque Country (N Spain). *Science of the Total Environment* (681), 66-81.
- Idoate, F. (1977). *La comunidad del valle del Roncal*. Iruñea: Nafarroako Foru Diputazioa-Nafarroako Artxibo Orokorra.
- Martín Duque, A. (1963). *La comunidad del valle de Salazar. Orígenes y evolución histórica*. Iruñea.
- Mikelarena Peña, F. (1988). Demografía y Economía de las Cinco Villas de la montaña navarra en el siglo XVII. El sentido de la crisis. *Príncipe de Viana* (183), 127-154.
- Mugarategui Eguía, I. (2012). *Propietarios, cercamientos y fábricas en Gipuzkoa (1500-1800). Una historia comparada con Granada*. Donostia: Gipuzkoako Foru Diputazioa.
- Orta Rubio, E. (1980). Nuevas aportaciones al estudio de las pestes en Navarra. (I). La epidemia de 1597-1602. *Príncipe de Viana* (153-154), 135-140.
- Perurena Loiarde, P. (2018). *Leitzalarreko Unaiak 1683 - 1771*. Andoain: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.
- Ugarte Elorza, F. M. (1976). Los seles en el valle de Oñati. *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País* (3-4), 447-510.
- Uriarte Ayo, R. (1988). *Estructura, desarrollo y crisis de la siderurgia tradicional vizcaina (1700-1840)*. Bilbo: EHU.
- Uriarte, G. (1985). Estructura económica. M. Á. Larrea en, *Historia Económica del País Vasco. Siglo XVIII* (129-158). Bilbo: Mensajero.